

# Landaburu' tar Xabier

Gure "Tierra Vasca" arrunt maite zun Landaburu'tar Xabier'ek, Argi kusten sizen sizen lan aundia, egin dezakeen eta egiten dun gure erria, gure aberria dala-la.

Txaututa utzi galitu bere eriotz-berriak. Arritzeko ai da? Joan zaigun lagunaren hideoak eta gureak etisiran zero bide bedinak. Baina eburu zaindu batek elkarizen gindun: aberri maitasunak. Eta maitasun onek eraginida bere biotza ta gure bat ziran.

Lagun on bat gendukan Landaburu'tar Xabier'engan. Aldi berean abertzalea ikusten genituen berengan. Eta laguna ta abertzalea gutxi ez basirun, agintaria zan guretzat: Euzkadi'ko Gobernuko Lendakari-ordekoa.

Lagunari agur dagoigu, milia oroitzapenez orturiko agurra. Abertzaleen gure barne-barnean daramagu. Agintaria astu eziniko zaigu. Nola Xabier'engan berezi laguna, abertzalea, ta agintaria? Guretzat ezina da. Egia da, lagunarenganuz dijoazkigu kutxili berezi-beretienak. Lagunak utzi digun utisneak ematen digu minik aundiena.

Laguna ta abertzalea. Eta gero berri agintari gendun. Gure Xabier kuttunaren eriotz-berriak zauri bai berriro digu Agirre tar Joseba Andoni'ek bere ituzitzaerakin iridi zigun zauria. Esin gindezko ordea ezerezu. Oinazeren zartakorri arpegi eman berrean gera. Ez gaitzala oinazeko menderatu. Maite ditugunak gainera ez liguteko ontzat artuko. Indar berriak geongan sartu erazi aurrera ta aurrera joan berrean gaitzakitsu.

Ortze da joan zaigunari eta joan zaizkigun guziet egin dezalokegun agurrik bereona.

Lagunaren oroitzapenak eskatzen du, abertzaleak, eta batez ere agintariak. Une ontantz gure Gobernuak pasa dizun nekaldi gogorra nabaitzen dizugu. Odoletan jalo zan eta geroztik ez diru egun on bat izan. Nekaldia gero ta artunagoa izan da.

Gure Gobernuaren nekaldia berri gero nekaldi berbera da. Gobernuau gu batera, euskaldin erria, dijoazkigu utzen dituzten utisneak betetzeko sortuko dira berriak, utzik ditugun utisneak betetzeko etorriko dira berriak.

Eriotz bakoiz indar berri bat eman bear digu. "Sortuko dira berriak gu gura Euskalerrriak". Nai ta nalezko da. Bestela betetzeko eriotza litzake, gure erriaren eriotza. Eta gure erria gu geraldik, gure esku dago bere bizia, bere etorkizuna.

Lagun kuttunari ez genitoke omen aundilagorri egingo. Jarrai ta jarrai! Ezer pasa ez balitz bezela, Baina lagun kuttunarengan abertzalea ta agintaria ikusirik, ez dagoziku besterik.

Landaburu'tar Xabier, Euzkadi'ko Jauriaritza-Lendakari ordekoa beginimietan degularik, besterik ez digu esango: "Sortuko dira berriak, gu gura Euskalerrriak".

Gora Euzkadi' arkatuta!

# Paulino Gomez

Au ere joan zaigu. Pitinka pitinka danak dijoazkigu. Urteak nurrera dijoazen bezela bakartasuna aunditagoa da.

Paulino Gomez'en eriotz-berria penagarri izan da. Sozialisten artean ez baigabiliz lagunez ugari.

Eta gero berri, aro berezi baten oroitzapena dakarkigu Paulino'n izanak. Gure Kontralo aundienetako izan ondoren lagun bikanenetakoa genun. Beste desoirik etzebilkin: egunen batez Bilbao'ko udal-etxean edo alduidun abertzaleekin jardun ill da bizi lanean, danen artean gure erriari egain genizkion kalteak txukatzeko.

Egun ori ikusi gabe joan. Baina bere asken momenturano Bilbao'ko ikuspegi betarik izan zitun begiak. Eta agian ikuspegi onek eraginida maite zizun berak maite zun bezela Euzkadi'ko Jauriaritza.

Paulino'ventat jebait berezi zan Euzkadi'ko Jauriaritza. Bilbao zan gure Jauriaritza beretzat, Bilbao bai zan aldi berean berarentzat Euskalerrri gusia.

Ori ez dala abertzaleen zera? Badakigu. Ez degu Paulino eusko-abertzale zanik. Bilbao ordea abertzale sutsuenak bezin sutsu baita zizun. Eta Bilbaog'ganako maitasunaz gure Lendakari zanik eta gure Lendakari danak gizonik leialena zaukaten bererangan.

Abertzaleok berri lagun on bat gendukan Paulino'rengan. Laguna sailta zaigu batez ere. Beti zer naitan laguntzeko prest zegoen laguna. Toulouse'n bizi zan etxe zar artan, arkitu dute babes pranko bider euskaldunak; nunaitik joaten zitzaizkion euskaldunak zabal-zabal irikita zauzkaten an atek, gu berriak ere etzeuketen.

Konsejeroranganuz dijoazkigu biotz-begiaz errespatorik aundienarekin. Baina guk esin ukatu: batez ere lagunarenganuz dijoa bero-bero gure agurrik maitekorrena.

Lagun bezela gizon aparta bai zan Paulino. Neurri osoko laguna.

Eta auxe esan bear degu: "Tierra Vasca"n asko maite genun Paulino sana. Eta bere oroitzapena oroitzapen goxoa izango zaigu beti.

# "LARDASKETA" - Parrez ta Negarrez Bedayo'tar Batek Argentina'n Idatzia


## GURE AITA LASTERKARI

1896'garrengo uaberria zala ueste def. gure aitak lasterkapustu jokatu irabazi zuela.

Apustu ura, jai atzaleko berperak ondoan jokatu zan, Bedayo'ko plastik Askarate'ko plazara joan da etorri, alimbeste edo oinbeste minutu barru. Apustu artan, nik ifoila emen lakin zenbat diru jokatu zan. Baina, ongi gogoran daukat, Bedayo'ko Elizaren parete ondoan, nola ipifit zuten mail bat, eta bere ganean erlotu bat eta gure aitak bere esku bat farriz zuan mail arean gaitian, ta bere aldamenetik bi gizon, eta aietako bat, Ametzeta'ko Pedro Sautze, sberre saleroslea.

Alako batean, len esandako bi gizon aiek aiti ziran kontzienten: Zen bi... tr... lau... Alaxe an baitu den gizon guziak sai ziran lasterkeri gizonen Elizetxe inguruko alda-paxo ura, ta etxe inguruko langa artatik gu egon gitan begira gure

Ta nolakoas ote zan bada Joana-Gorri' lasten zuan alondara? ... Lontxo'k eta nik esin gen. tzaken ba ezagutu, ez Joana-Gorri ta ez bere alondara. Baina, gure aitak alako gusa esanikan, Lontxo ta nik ueste izan gendun, gu ere lasterketariak aterako gindala. Ta alaxe ibiltzeri gitan korrikita Bedayo'ko Eliz inguruan, zata edo abarka beltzak ongi urratu arte.



# EGUNETIK EGUNERA

Gure Lendakari zanaren gorputz-ziaren aurrean. Landaburu'tar Xabier'ek esan zizkidan: "Batzuk dabilkiz zizka. Oraitxe bear digu inoiz baino alkartuago."

Il aurretik esan zizkidan beste iz batzuk ere ementxe dabilkiz. "Bizimodu gogorra dek gurea, gukxiem ueste deguneag orrelaxe atezarizen zaizkiguk barne-barnean gordetzen dijakigun izkuten on-dorenak".

Egia esan, gordetzen dirugu pranko naigabe. Naigabe izkutuak Zent-baitek erretasuna ditute naigabeak izkuten gorde gabe parragarria kanpora botatzeko. Agian norberarentzat otea da.

Badira ordea naigabe izkutu orietek kanpora gabe barne-barnean gordetzen dituztenak. Eta naigabe orietek apurtzen dituzte gizona, berolek jaten dute berolek txautu-lizen dute.

Inoiz baino alkartuago... Ez al dizu ba gure artien egunero jardunak Alakoas naigabe izkutu bat barnean utzikoko. Bidur ematen du etorkizunak. Gure erriari buruz alegia. Sakabanaturik edo sakabanatu-bidean bai gabiliz.

Egon oiek dira gure erriaren bizirikozari buruz egirik arduragarrirenak. Danak dakigu zergatik. Zergatik aiatu? Zergatik milia biden esan deguna berriro?

Gerrate gorrian, represioa zitalena zantean, norbera bizitza ari ari batetik zintzilik zegoanean, ez al de-

ARRUPE - BASARRI! Aurtan "Larañeta" erre dan bezelaxe "Arrupe" ere erre zan, udaxe-batez betetzera zijoalarik. Baina, "Arrupe" eguerdiko amabiatan ikusitai zan Gogoratzen naiz nola jo zuten Bedayo'ko Elizaren foale edo kanpela.

Eliz-etxe ondoko langatik, egon gitan begira "Arrupe" ko si garra-gi. Bina pistu zantetik, ordu bete barru "Arrupe" ko telatua lurren-tatu zan.

Baserrari aitak, bi sendi gizaok Alaxe gaitian ziran atarian. Miel-Jose edo Jose Migel, ta bere sendia Bizkarate'ko bordan joan ziran bizitza, ta borda artan bizi izan ziran, gutxienez lau urtean.

"Arrupe" ko beste sendia Arrape' aundie zan. (Rafael Tolosa) ta onek sendi edo famili aundi samara zuan eta Arrape'ek ere bazezan borda bat, goiko sordu putzu inguru artan, 5 edo 6 illabetean itzala egoten dan toki artan.

Sendi gizaok aiek bizi bearra iduki auten bi borda zar aietan alimbeste denboran.

"Arrupe" ta bere lurraldeen ia-beak ezuten bada ezagutu, ifoaloko errukirik ote edo fende on ta beartu aien gaitik. Zertako balio du alako edo onelako aberastasunak?...

Arrapel Tolosa ta bere sendia Sercin-putzuko bordan bizitzen nekakuta, aiek alaidu ziran bada Askarate'ko baserri txiki baten. Elze aldaketa ura, 1901'garren urte aste-ran ueste det zala, ta aipatuko sendia alaidu zalarik. Bedayo'ko zurgin Joanizko Iusana, (gero gure Mikel'e'n aita giaberra) ura labetu zan lur alde aiek lantzeko.

Arotz edo zurgin Juanizko jaunna ("Arrupe" ko maizter berria) ta Miel Jose (Buna (au garai bateko txistu ta danbolin jotzalea), bi gizon aiek jaso zuten lurrean zegoan "Arrupe".

Nere ueste, etxe arren nagusi jaunak, etxe ura antolatzeko edo kontpontzeko, bere zizkutek edo sekeletik etzen bada marauredi edo maravediok eman.

Oinek inguru det garai artako "Arrupetariak" emanen auten be-ran bizkarrean. Jusu'gen guretzak.

Garai artako "Arrupe" ren nazigua Kristina ote zan? ... Bere etzifakin alako gaurtik etzen bada asko erakutai. — (farrailuko du)

ritzatzue gaur baino okekiago ginala? Alkarrenganako maitasunak dizun indarra! Alkarturik joatek ematen dizun saso!

Zergatik ordu bai eta gaur ez? Gure gizaideko gizonak ain gaitz-tokoz izan al dira ba. Baina ez otea da naigabe izkutuak barne-barnean gordetzea. Geontzako bakarrik eramango ditugu geontzako bakarrik gordeko ditugu.

Inoiz baino alkartuago...

Inoiz baino alkartuago...

Gorputzili baten surretan etor-zen zaizkion burutapenak! Batez ere gorputzili ori bizirik ba-nean lagun kutan bat zalarik. Ba-tez ere lagun orrengan gure gaste-dia ta gure gaste denborako got-amestak berrikutzen ditugun.

Agur Xabier. "Oraitxe bear digu inoiz baino alkartuago!"

Jainkoaren pakea bezak lagun. Eta egin gaitzak arren, pake ere orren erdikide emen beian gerald-irik. Pakea alkartasuna baita. Ortze zuek, artzaiok ukan, gure erriaren etorkizuna...

Esturte

# KAKOA BARRUAN

"Gure erria eskatuta dago... "gure erriak etzu balio ezertara-ko"... eta abar. Zenbat baldar ez dugu orrelarik entzun!

Eta, egia esateko, badirudi ala dala.

Grimau'ren eriotza dala-la, toki askotan alpatu dira guzua asko. Kanpo-aldean, zaiantzik gabe, Franconer kontra miazatu da; eta ori ikusita, batek balio gelago penatatu du oraingo ontan Fran-co'k "anka sartu duela".

Nik ez dut ori ueste. Batuzan, gaitza bera g'a pertzina berak entzun ondoren, sinistu egiten di-ugu geronek esandako eta barre-latutako berriak. Grimau ori buruz ere, gaitza berbera gertatu ez ote zaigun bidur naiz: gure ueste? "kintza izugari bat izan dana, bestean ueste ere berdin izan dedin nau dugu. Eta sinistu ere egiten zugu askenean.

Zergatik galdetu dut. Eta erant-zuna beteala etorri da: telebisioan au ta beste ikusi dituelako, prent-san au ta ura argitaratu dalako, eta abar. "Grimau kriminal bat zan; orrelako bat litzea normalea da. Edozein tokiatan gertatzen da orrela".

Orra or egia. Jende askok ori esan du.

Beste batzuk, askok gelgik beste au esan dute ere: "Grimau ori komunista zan. Ortaz, zertarako negar oriet? Bera ere agintzera iritxi ba jitz, nola ibilikio zan bada?". Beste era batera esateko: komunista litzea normalea da.

Ortze dugu gure erria. Ori bur-tu du frankismoak. Eta gure gau-zak ez ba doaz, ez dezagun den-bora gelago galdu zergatik ote dan gaitzeka. Orregatik, irakurleok Grimau litzean jendeak ala ortu duelako.

Ere gelago. Barruan au ditzen g'a sartu (eta ez parrerik egiti, egia ueste baita): "Frankizian ez dago libertaderik batera: baxo-er-di bat artzea ez da posible gauer-di-erkozotik. España'n, berriaz, gau-eko ordu bitan ere edozein saua edan ditek. Zertarako nai dugu, ortaz, Frantzia'ko askataguna " (SIC).

Orrelako iritziak dira an nagusi. Egia ez ikusteak ezin dezake ekar kalte besterik. An, barruan, Erakus dizagun, beraz, gure ahaigieftan, toki guztierako Aber-riaren abotsa entzun-arraiaz, gure iritzi.

Anartean, ametsetan ibilikio gura, TXILLARDEGI

¡EUKALDUNAK!  
Europa'ta juteko, zubenbide bakar bat:  
¡VASCOS!  
Para organizar su viaje a Europa, una sola dirección:  
¡BASQUES!  
Pour organiser votre voyage en Europe, une seule adresse:  
**AGENCE DE LA POSTE S.A.R.L.**  
Licencia 62164  
Director-propietario: J. A. DE DURANONA  
SAN JUAN DE LUZ (B. P.)  
40, BOULEVARD VICTOR HUGO  
Cobles: "INDAR"  
Tel. 26 - 11 - 22  
"EUSKERAZ ITZ EGITEN DA"